

OSOGUNEKO ERAKASKERA.

1996-97 IKAS-URTEA.

ELHEKETA: Aste huntako solas.bidea.

- 1. Zertako idazlaria lotsa zen Nagusi eta Langileak?
- 2. Zerekin emaiten du langileak? *(mintzagatza)*
- 3. Zer egin ongi joan diten nausi. langile ki lahoak?

II

NAUSI ETA LANGILE II

Zertako ez aithor, bertzalde, lotsaz¹³ egon girela, solas huni lotzeko? Ezen ez daukagu baden bazterretan, hau baino hanbat minberagorik. Ez dakizu nondik ez nola hunki¹⁴.

Langileen alde mintzo balin bazira nausiek beltzuri¹⁵; zertan sartzen ziren heien artean; utz ditzazula ixilik, deus ez dakizula, eta holako.

Nausien aldea daukazula iduri bazeie, langileak muthur: ez duzunetz¹⁶ jende xehea urrikari; zuzen zautzunetz, nausia langilearen izerdiz gizen dadin, huni bere zuzena eman gabe. Nola mintza ororen gogora? Eta bizkitartean, norat nahi zoazin, hiri hoitarat, bertze solasik entzuten ez duzularik, nola egon, behin bederen hitz bat erran gabe, zauri huntaz?

Egiatzko zauria! Guk hemen Eskual Herrian, ez dugu oraino, Jinkoari esker, gaitz hortarik hanbat, nahiz hemen ere tokitan, asko erraiteko baduketan elgarrez nausi eta langileek. Bainan zoazi hor harat: nonahi, noiznahi, zernahi estakuruz, kalapita¹⁷ gorria dute.

Jinkoak baitaki, langileen eta nausien arteko hisia¹⁸ tzar horrek zer ondorio ikharagarriak dakharzkeen! Ba eta ja ondorio makhur anhitz ekharri ere badu Frantzian horrek: diru gaitze, irabazpide tarte, lan gibelatze, gosete, odol-ixurtze... nork erran zer eta zertat jazarkunde itsusi?

Eta bizkitartean oraineko iragan hoik oro deus guti dire, sarrixago¹⁹ bizi denak entzun eta ikhus ditzazkenen aldean. Ezen esku-lan guzia lehen ez bezalakatua da osoki. Lehen eskuz eta besoz egiten zena, orai tresnaz; anhitz errexkiago, eta lan gutiagoz, langile gutiagoz, lan arau²⁰.

III - ADITZ IKASKUNTZA.

- 31. ez daukagu 32. utz ditzazula
- 33. gizen dadin 34. norat nahi zoazin
- 35. baduketan 36. ditzazkenen.

31. IDUKI. Tenir - Indicatif Présent - Singulier.

Hura = le, la.

- Nik daukat = je le tiens
- Hik daukake = tu le tiens
- Zuk daukazu = vous le tenez
- Harek dauka = il le tient
- Guk daukagu = nous le tenons
- Zuek daukazue = vous le tenez
- Heiek daukate = ils le tiennent

32. UKAN. Subjonctif Présent. Obj. sing et Obj. pluriel

- | | |
|----------------------------------|-------------------------------------|
| Nik ukan dezatan = que je l'aie | N. ukan ditzatan = que je les aie |
| Hik " dezakanpen = que tu l'aies | Hi. " ditzakanpen = que tu les aies |
| Zuk " dezagun = que vous l'ayez | Z. " ditzagun = que vous les ayez |
| Harek " dezan = qu'il l'ait | He. " ditzan = qu'il les ait |
| Guk " dezagun | G. " ditzagun = que nous les ayons |
| Zuek " dezaguen | Z. " ditzaguen = que vous les ayez |
| Heiek " dezaten | He. " ditzaten = qu'ils les aient |

33. IZAN. Subjonctif Présent.

- Ni izan nadin = que je sois
- Hi - " - hadin = que tu sois
- Zu - " - zaiten = que vous soyez
- Hura - " - dadin = qu'il soit
- Gu - " - gaitzen (gaiten, giten) = que nous soyons
- Zuek - " - zaitzten = que vous soyez
- Heik - " - daitzen (daiten, ditin) = qu'ils soient.